

Familia agurgarriak:

Azken urte hauetan, Tolosako, eskualdeko eta probintziako gazte eta nerabeen familiengana jo dugu, inauterietan alkoholaren kontsumo desegokia dela eta dugun kezka berri emateko.

Aurten ere hala egin dugu, baina beste testuinguru batean, ezohiko egoera baten aurrean baikaude. Covid 19aren hirugarren pandemia-olatuan gaude, eta horrek zehazten du ezohiko neurriak hartu behar direla; horregatik, ezin da inauteririk ospatu.

Aparteko neurriak hartzea ez da beti neurri horiek betetzearekin batera gertatzen. Beste leku batzuetan botiloia bezalako egoerak gertatzen ari direla ikusten ari gara; izan ere, lehen ere kezkarriak baziren, pandemia-egoeran are eta kezkarriagoak dira.

Horregatik, gomendio hauek kontuan hartzeko eskatzen dizuegu:

Komunikazio aktiboa

Komeni da gure seme-alabekin zuzenean hitz egitea kutsatzeak saihesteko moduari buruz. Beren ekarpena pandemia gainditzeko oso garrantzitsua dela jakinaraztea komeni da, uste baitugu ondo egingo dutela, nahiz eta ez den erraza haientzat. Azaldu behar zaie beren jarrerarekin lagundu egiten dutela beren burua zaintzen eta lagunak, familia eta, oro har, gizartea zaintzen.

Eredu osasungarriak

Familiak Covid 19aren prebentzio-neurriei buruz duen jarrerak eragin handia du seme-alabek pandemiari dagokionez duten jokabidean. Arduratsua bazara, litekeena da zuen semea edo alaba ere arduratsua izatea.

Arau argiak

Gogoan izan pertsona guztioi dagozkigun arau argi batzuk daudela, eta horiek betetzea funtsezkoa eta beharrezkoa dela guztion osasunerako: udalerriaren perimetroa ixtea, gehienez ere 4 pertsona elkarrekin egotea pertsonen arteko beharrezko distantziarekin, maskara erabiltzea, alkoholik ez kontsumitzea kalean, gazteen lokalak eta elkarte gastronomikoak itxita egotea...

Aholku horiek kontuan hartzea espero dugu, eta, guztion konpromisoarekin, osasun-egoerak etorkizuneko inauteriak normaltasun handiagoz ospatzeko aukera ematea.

Olatz Peon Ormazabal
TOLOSAKO ALKATEA



udala.tolosa.eus





El año que viene celebraremos los Carnavales de Tolosa con más ilusión y ganas que nunca

Estimadas familias:

Los últimos años por estas fechas nos hemos dirigido a las familias de jóvenes y adolescentes, tanto de Tolosa como de su comarca e incluso provincia, para transmitirles a través de una carta como esta, nuestra preocupación por el consumo inadecuado de alcohol durante el carnaval.

Este año también lo hacemos pero dentro de un contexto diferente, nos encontramos ante una situación extraordinaria. Estamos en la tercera ola de pandemia de Covid 19, lo cual determina que se deban adoptar medidas extraordinarias, por ello, no es posible celebrar el carnaval.

El hecho de que se tomen medidas extraordinarias no siempre va acompañado a que estas se cumplan. Estamos siendo testigos de que en otros lugares se están produciendo situaciones como el botellón, que si ya eran preocupantes anteriormente, lo son más en la situación de pandemia que estamos.

Por ello os pedimos que tengáis en cuenta las siguientes recomendaciones:

Comunicación activa

Conviene hablar directamente con nuestros hijos e hijas sobre como evitar los contagios en general y en estas circunstancias de no fiesta en particular. Transmitirles que su contribución es muy importante para la superación de la pandemia, que confiamos en que lo van a hacer bien pese a que no es fácil para ellos y ellas.

Explicarles que con su actitud contribuyen a su auto cuidado y a cuidar a sus amistades, familia y la sociedad en general.

Modelos saludables

La actitud que tenga la familia respecto a las medidas de prevención del Covid 19 tiene una gran influencia sobre los comportamiento de sus hijos e hijas en relación a la pandemia.

Si tú eres responsable, es más probable que tu hijo o hija también lo sea.

Normas claras

Recordad que existe una serie de normas claras que nos incumben a todas las personas, y que su cumplimiento es fundamental y necesario para la salud de todos y todas: cierre perimetral de municipios, no más de 4 personas juntas y con distancia interpersonal, uso de mascarilla, no consumo de alcohol en la calle, cierre de locales de jóvenes y sociedades gastronómicas,...

Esperamos tengáis en cuenta estos consejos y que, con el compromiso de todos y todas, la situación sanitaria permita celebrar el próximo carnaval con mayor normalidad.

Olatz Peon Ormazabal
TOLOSAKO ALKATEA

udala.tolosa.eus

